

Adolfo Arejita Labayru Fundazioaren zuzendariaren hitzak, Urkullu lehendakariak

Fundazioaren Derioko egoitzara eginiko ikustaldian.

Derio, 2017-06-14

Lehendakari jauna,

Kultura Sailburu jauna,

Ondo etorriak izan beitez Labayru Fundazioaren Derioko egoitza honetara.

Dakidala, lehenengo bider da Eusko Jaurlaritzaren lehendakaria Labayru Fundazioaren egoitza honetara datorrena, oraingo Fundazioa, lehenengo Ikastegia, sortu zanik eta gehiago. 1977an jaio ginen legez Erakunde lez, baina 1970. urtetik gehiago gagoz hemen Derion, Seminario zaharraren eraikuntza handi honetan, geure euskal kultura egitasmoak asmatzen, sortzen eta garatzen. 1970ean egiten hasia da hemen inguruon dakutsun Euskal Biblioteka, bere artxibo eta guzti. Hemen erne eta hazi zan, zuk ondo ezagutu dozun Derioko Euskal Ikastaroa, gerora urte luzez udaro hemen hamabost egunez egin izan dana; Labayruren euskal hizkuntza eta literatura arloa izango zanaren hasikina. Hemen sortua da baita Labayruren Etnografia departamentua, Euskal Herriaren herri jakintzaren eta Bizkaiko ondarearen alde hainbeste ekimen garatu izan dituen. Ez dago itxuraren bakarrik hemen ostean, Joxemigel Barandiaranen irudia.

Ez gara atzo goizekoak. 40 urte bete ditu aurtan Labayru Fundazioak legez erakundetu zanetik, baina urrezko ezteguak be hur ditugu euskeraren eta euskal kulturaren alde ekimen eratuak eta ondo taiutuak abian ipinten hasi ginanetik. Orduan plaza agirian egiten gatx zana, Derioko horma lodion barrunbean eta hegapean sortzen hasi ginan. Autormena eta esker ona adierazo nahi deusadaz gaur, geure artean daukagun ezker, Ander Manterola jaunari, berau izan zalako lagun eta lankide egokiez inguraturik Labayruren lan-ildo nagusiok abian ipini zituana.

Harako Bertrand d'Etxaus "mendi Pirinioetan, Alduideko hegaletan, bethiere zentinelak eta begiraille bezala, iratzarririk, dagoen jauregi eta gaztelu handi, eder, noble hartako seme" bezala, Labayru Fundazioak eta aurretikoak tinko eutsi deutso Euskal Herriaren sartalde honetan arbasoengandik jaso ditugun hizkuntza, jakintza eta ondare materiala eta ez-materiala batzen, jagoten, ikertzen eta gizarteratzen.

Epe luzera jokatu dau Labayruk, lur mamintsu bihurtu dau lehen eremua gor zana. Lan iraunkorra, sendoa, sinesgarria egiten saiatu da beti, baina aldian aldiango eskari eta preminei jaramon eginez. Lehena eta modernitatea buztartzen saiatu da, eta horretan dirau.

Ondo dakigu, lehendakari jauna, Eusko Jaurlaritza, eta Euskal Erkidegoa; askotariko kezka eta zereginen betirik dabilena. Egunero dantzugun soinua da Europara eta mundu zabalera edegirik lekutu behar dogula, herri txiki baina moderno eta aurreratu baten leihan: teknologia aurreratua, industria dinamiko eta dibertsifikatua, ikerkuntza, enplegu tatsa gorea... Eta hori guztiori Erkidegoko biztanleriaren ongizatea, osasuna, hezkuntza eta beste zerbitzu kualifikatuak bermatzearen mesedetan.

Labayru Fundazioak be, dan txikian, kulturaren aldetik dihardu euskal gizarteari ezinbesteko osagarria eransten. Zientzia eta teknologien aldetik baino gehiago humanidadeen aldetik, euskal etniaren kulturaren zimendua daben kultura osagarrien aldetik. Euskaldunok munduan ezer izango bagara, geure izaeraz, hizkuntzaz, baloreez, tradizioez, pentsabideez horniturik izan beharko dau, ez inoren soinekoz jantzita.

Teknologia aurrerakuntzak gizarte kultura sendo batez buztarturik beharko dau egon, eta horretan bihurtu da ibilbide luze bat eginez ardatz eta erreferente Labayru Fundazioa. Ez gara itxuraz unibertitate, baina ekintzaz bai unibertsidade erako.

Lehendakari jauna, Kultura sailburu jauna. Zuek gure artera etorri izana baliatu nahi izan dogu, gure hizkuntza eta kultura edukiak Euskal Herriaren modernitatean eta berrikuntza prozesuan baztertu ezinezko osagarri dirala gogora ekarteko.

Eskerrak bihotzez. Ondo etorria izan beitez eurok.